



Santurtzi, 2017/12/16

“Feministok gerraren aurka. Armagintza eta arma-salmenta eten!” lelopean Euskal Herriko Mugimendu Feministak deitutako martxa Santurtzitik abiatu eta portua hartu du. Irmoki salatu dute gerra Bilboko portuan hasten dela, bertatik abiatzen baita hilero, Eusko Jaurlaritza eta Portu Agintaritzaren bermearekin, Saudi Arabiara armak garraiatzen dituen itsasontzia. Martxan zehar egindako ekintzen bidez “historian zehar milaka emakumeren borroka antimilitarista”

ekarri dute gogora, “bortizkeria heteropatriarkalik gabeko munduaren eraikuntzan egindako ekarpena” aldarrikatuz.

Mila feminista inguru abiatu dira Santurtzitik gaur goizean Arabia Saudi helmugatzat duen milaka tona armaren garraiobidea ahalbidetzen duen portu honen erabilera salatzen. Martxa feminista antimilitaristan gerrateen kontra azaldu dira emakumeak, suntsipen eta heriotzaren aurka, gatazka garaian emakumeak hartutako posizionamendu ausartez hitz egin digute eta, halaber, bakearen bidea eraikitzen momentuetan feminismoaren presentziaren premia.

Ez dute ahaztu nahi izan portu honek duen izaera sinbolikoa; zehazki hemendik, Santurtziko portutik bertatik, milaka umek egin behar izan baitzuten ihes urrunera Guda Zibilean, babes bila. Memoria horri heldu nahi izan diote ere gure herrietan sortu eta elikatzen ditugun gerren ondorioak ukatzen dituzten migrazio-politikak seinalatzeko. “Bilboko Portuan harresia eraiki dute, pertsonen igarotze askea galarazten duena, eta Europar Batasunean jada dauden mugak areagotzen dituena. Muga hauek, gizakien suntsitze eta guda-imaginario bihurtu dira, transitoan dauden pertsona oro zapaltzen dute eta, etorkin eta errefuxiatueen oinarrizko eskubideak ukatzeaz gain, kriminalizatu egiten dituzte” esan dute antolatzaileek.

Feministek Bilboko portua hartu dute gerra bertan hasten dela salatzeko (2017-12-16)

Larunbata, 2017(e)ko abendua(r)en 16-(e)an 17:37etan



Feministek Bilboko portua hartu dute gerra bertan hasten dela salatzeko (2017-12-16)

Larunbata, 2017(e)ko abendua(r)en 16-(e)an 17:37etan

